



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-  
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea  
eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak  
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

### Liburutegi nazionalaz

Igandeko (urtarrilak 9) EGUNKARIAN, 40. orrialdean, egin nahi den Liburutegi Nazionalari buruzko artikulua interesgarria dator.

Horrelako asmo bikaina burutzea zinez ederra litzatekeela onartzeko ez dugu uste indar gehiegi egin behar denik. Eta kokapenari dagokionez, geuk ere baskoien hiriburuan izatea hobetsiko genuke, arrazoi historikoak ez ezik, Iruñea geografiaren aldetik ere toki egokia delako.

Zio politikoak direla-eta Iruñea aukeratzea ezina balitz, berdin dirudi han edo hemen egotea, betiere beste euskal probintzietako loturak egingo balira. Eta zeregin hori guztion onerako burutzekotan, noski baino noskiago.

Guztiontzat diogunean, badu esaldi horrek bere mamia, zeren eta duela pare bat egun Interneten ari ginela Euskal Herriko liburutegien kokagune eta zerbitzuak non dauden eta nolakoak diren jakin nahirik aurkitu dugun zerbaitek harriturik utzi gaitu (txunditurik, hobe). Alegia, Bilboko Bidebarrieta Liburutegiari buruzko xehetasunak ematerakoan, honela diote 5. atalean: «*La consulta es libre (...) para cualquier ciudadano que viva, trabaje o asista a un centro escolar de Bilbao*».

Esaldi horrek, oso oker ulertzen ez badugu behintzat, edozein barakaldar edo santurtziarrek ez lukela eskubiderik izango adierazten du, liburu bati buruzko kontsulta egin nahi izango balu. Gainerako bizkaitarrek eta, zer esanik ez, beste euskaldun guztiak jai dugu. Non eta, Bidebarrietako Liburutegian zerbait kontsultatu nahi izanik,



Marea beltza Alemanian.

Bilbora bizi izatera, lanera edo ikastera ez garen joaten.

Beraz, Liburutegi Nazionala ongi etorria izan bedi, ederra izango baita hori ikusterik izango dugun eguna, baina edonon ipintzen dela ere, ez otoi jarri iruindarrentzat, bilbotarrentzat, donostiarrentzat, baionarrentzat edota gasteiztarrentzat bakarrik. Guztiontzat eta edonorentzat baizik. **Jose Antonio Azpiroz • DONOSTIA**

### Euskal selekzioa

Gutun honen bitartez, gustatuko litzaidake Euskal Seleksioko partaide guztiak zoriontzia.

Bereziki abenduaren 29an San Mamesen partidu bikaina jokatu

zuten euskaldun futbolariak. Oso adoretu jokatu zuten, eta ateratako fruitua egokia izan zen, ikusirik zer-nolako lan bikaina egin zuten alajaina, 5-1 galdu zuten eta nigeriarrek. Eraitza bikain horren isla, Euskal Selektzioa sortzeko beharrezkoa den zirrarra bat da. Horrela Espainiari eta Frantziari erakusiko diegu euskaldunok gure nahia lortu arte ez dugula etsiko; eta jo ta ke arituko garela. Besterik gabe, Euskal Selektzioari: eutsi goiari! eta jakizue euskaldun askoren laguntza daukazuela. Segi aurrera!

Agur bat Euskal Selektzioa osatzen duten kirolari guztiei, eta baita Euskal Preso eta Errefuxiatuei ere. **Naiara Bengoetxea Andikoe-txea • ALGORTA (GETXO)**

### galdeiozu...



**Miren Azkarate**

EHUKO IRAKASLEEN ERREKTOREORDEA

**Egoera diglosikoetan, proiektu elebakarrak beharrezkoak dira hizkuntza gutxituak aurrera egiteko. Zergatik ez unibertsitate euskaldun elebakarra?**

**Jose Miguel Campillo [Bilbo]**

■ **UNIBERTSITATE** euskalduna esaten dugunean, kontuan hartu behar dugu *unibertsitate*-az ari garela, hau da, hizkuntza kontuak garrantzitsuak izanik ere, unibertsitate izaera dela gauza guztien gainetik gorde beharrezkoa. Eta hor, nire iritziz, ez dugu oraindik baldintzarik unibertsitate euskaldun elebakar sendoa eratzeko. Hobe da, nik uste, euskaraz zein erdaraz ikas-irakats dezaketen ikasle eta irakasleen aldeko apustua egitea. Eta, jakina, euskaraz eta erdaraz lan egin dezaketen Administrazio eta Zerbitzuetako langileak prestatzen jarraitzea.

Urtarrilaren 18tik aurrera  
**Iñaki Gerenabarrena**  
• EUSKO JAURLARITZAKO  
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA  
SAILBURUA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.  
Bidali zure galderak ordurako.

### • MONTXO •

